

Legazpin, 2020ko urtarrilaren 14an

Guraso agurgarriak:

Zuen seme-alaben bizitzako unerik garrantzitsuenetako bat heltzear dago, bere etorkizunerako oinarriak ezarriko dituen eskolaratze prozesuaren hasiera, hain zuzen ere.

Legazpin bertan dauden eskaintzen artean egokiena zeini deritzozuen erabaki baino lehen, gutun honekin batera bidaltzen dizuegun dokumentazioan Haztegi Ikastolaren Hezkuntza Proiektua ezagutzeko aukera izango duzue.

Gutziz garrantzitsutzat jotzen dugu Haztegi Ikastolan haurrari eskaintzen diogun aukera, **2 urtetik 18 urte** bitarteko ikasketa guztiak ikastetxe berean egitea ahalbidetuz, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) eta Batxilergoa (DBHO) bertan eginez.

Bestalde, aipatu beharra dago egungo gizarteari egokitutako **heziketa integralarekin** dugun erabateko konpromisoa: **Hezkuntza proiektu berritzailea, irakasleriaren etengabeko hobekuntza, pedagogia teknika aurrerakoiak, azken teknologia berriak, eleaniztasun goiztiarra...** eta hau guztia gure familien konfidantzari esker.

Hemendik aurrera ere, gure ibilbide honetan, zuen konfiantza izan nahi genuke. Hau dela eta, hartu behar duzuen erabakiaren garrantzia kontuan izanik gu hobeto ezagutzeko egingo ditugun bileretara gonbidatzen zaituztegu.

BILERA EGUNAK:	Urtarrilaren 21ean (euskaraz) eta 23an (gaztelerez).
GAIA:	Haztegi Ikastolako proiektua eta funtzionamendua.
NON:	Latxartegiko gelan.
ORDUA:	18:00etan. Haurtzaindegi zerbitzua egongo da.
ATE IREKIAK:	Urtarrilaren 28an eta 29an. Ordua: 10:00etan, 15:30ean eta 18:00etan.

Egun hauetan etortzerik ez baduzue edo bestelako hartu-emana nahi izanez gero, 943731097 telefonora deituta laguntzeko prest aurkituko gaituzue.

MATRIKULA EPEA:	Urtarrilaren 28tik otsailaren 7ra. Ordutegia 08:00 - 13:00 eta 14:30 - 18:00 Ikastolako idazkaritzan.
-----------------	---

BEHARREZKO DOKUMENTAZIOA:	- Familia liburuaren fotokopia. - Gurasoen NAN fotokopia. - Errolda agiria. - K/K edo libretaren zenbakia.
---------------------------	---

Laster elkar ikusiko dugulakoan, agurtzen zaituztegu,

Xegun Altolagirre Auzmendi
Haztegi Ikastolako Lehendakaria

Sagrario Etxabe Lasa
Haztegi Ikastolako Zuzendaria

HAZTEGI IKASTOLA Koop. Elk.

S/Kutz 5 - 20230 - LEGAZPI (Gipuzkoa) · TEL: 943 73 10 97 · FAX: 943 73 15 37
legazpi@ikastola.eus · www.haztegiikastola.eus

